



Zailtasun handirik gabeko bidea da, baina erliebe patartsua du. Ondorioz, bide honen egiteko, ibiltzeko usaia izan behar da. Itsasuko lehen gainetan, ibilaldi honek ikuspegi zoragarriak eskaintzen ditu.



Urzumuko mendi mazela

Argazki kreditua: I.Arluciaga

Abiatzea: Ateka / Sanoki aparkalekua.

Helbidea: karrika nagusia, plazan ezkerreko bidea segitu, ehun metroan eskuin: aparkalekuko sartzea. (Ateka/Sanoki gelaren beheko aldean). **D** Aparkalekutik atera eta eskuinera joan. 628743 - 4798876

Errekaraino zuzen jautsi (eta erreka trebesatu) **1** 628661 - 4798503 Basaburuko errota pasatu (Larrondoa). Atharri kaskoko bidea segitu (gaztainadi ederra). Bost bideko kurutzera heldu. **2** 628745 - 4798274

Eskuinera joan, bide mundrunatura eta etxalde multzo batera daraman bidetik.

Azken etxaldea pasa ondoan (Fagaldia), bidea utzi eta parean den lurrezko bidetik joan.

Bide mundrunatuarekin bidegurutzean (Gerastoko bidea), eskuinera joan **3** 626998 - 4798161.

Segitu eskuinaldetik bide mundrunatuan ibiltzen, Ezpeletako errepidera heldu arte.

Bigarren mailako errepide hura trebesatu eta goiti abian den bide ttipitik joan.

Bide honen gainean, bidegurutzean, eskuinera joan eta gero ezkerreko bide mundrunatura.

Bide mundrunatu honen behean, Kondixingogaina **4** 626849 - 4798975, eskuinera joan.

Guti gorabehera 300 metroren buruan, ezkerreko bide mundrunatura joan: Urzumuko bidea.

Urzumuko goi-ordokira heltzean, parean eta doi bat ezkerrean den bidetik joan, hegazkinlaritza eremuaren itzulia egiteko. **5** 627580 - 4799227

Bidegurutzean, utzi GR8 bidea ezkerrean eta eskuinera buruz itzultzen den bidetik joan **6** 628156 - 4799579

Handik hurbil: Ama Birjinaren estatua eta orientazio mahaia (aireplanoen hangarraren eskuinaldean) **To**

Hegazkinlaritza eremuaren itzuliaren bukaera: Iribarne oroitarria **St**.

Robert Iribarne 1918an sortu zen. 1938 urtean, Frantziako pilota txapelduna izan zen.

« Normandia taldeko » ehiza pilotua izan zen. 1945ean zendu zen.

Sobietarrek dekoratu zuten (Izar gorria eta Garaipenaren medaila). Eta Frantziak ohoratu zuen: gerlako gurutzeta 4 palma eta 3 izarrekin, medaila militarra, Frantziako iheslarien medaila eta ohorezko legioa hil ondoan.

Ezkerrean den bide mundrunatutik joan. Oihan baten barnetik beheiti abian da.

Herrira heltzean, errepidea trebesatu eta Ateka eta Sanoki eraikinen arteko korrale lauzatuan sartu.

Ahalaz, Ateka zentroa bisitatu. **A**

Eta, azkenik, aparkaleku arte jautsi.





D Abiatzea: Itsasu

Ateka/Sanoki aparkalekua

GPS:

628743-4798876



2:15



+300 m
-300 m



9 km

Seinaleak

D tik A ra

4 tik 6 ra



Huts egin behar ez direnak:

- Basaburuko eihera (Larrondoa infanzon etxea, 1249)
- Euskal kostaldeaz eta Pirinioetako mendilerroaz ikuspegi zoragarriak.
- Iribarne oroitarrria
- Orientazio mahaia
- Ateka zentroa (bisita urrik)



Lekuak errespetatu.



Argibide gehiago:

Itsasuko Herriko Etxea - 409 Karrika Nagusia - 64250 Itsasu.

Tel: 05 59 29 75 36 - E-mail: accueil@itxassou.fr

Webgunea: www.itxassou.fr